Cáritas
Bizkaia

# CARITASEN KANPAINA

2015.eko ABENDUAren 20a

## ABENDU ALDIKO 4. DOMEKEA (C)

## «ZUZEN jokatu egunero: praktikatu Justizia»

**Liturgi lagungarriak**

**Atarikoak:**

- *Lagungarriok liturgiarako talde sustatzailearen esku itzi.*
- *Aldez aurretik prestatuta dagozanez, kontuan izan kanpaina egingo dan egunetan Jaungoikoaren herriaren otoitzean gogoratu beharreko gertaerak izan daitekezala.*
- *Liturgi lagungarriakaz batera bialtzen diran materialak irakurtea egokia da, kanpainaren nondik norakoak ezagutzeko eta homilian esango dana argitzeko.*

### HASIERAKO OHARRA

Anai-arrebok: Gabonak atarian doguz. Abendu aldiko azken domeka honetan, Mari itxaropenaren Amabirjinari begiratzeko esaten jaku beste behin be. Egon gaitezan prest, Mariaren antzera, Jaunari harrera egiteko eta Jaunaren bideetatik joteko. Bera da gure osotasuna.

Caritasek dei egiten deusku gaur bere Gabonetako kanpainan parte hartu daigun. «Zuzen jokatu egunero» aldarrikatuz, maitasunaren eskakizun nagusia zuzentasuna dala dinosku: lagun hurkoa maite izatea, dalako hori bere duintasuna eta eskubideak autortuz benetan errespetatzea da.

Jaungoikoak justizia gauzatuz eta defendatuz munduan senidetasuna hedatzeko dinosku; azken batean, Jaungoikoagan sinistea zuzentasuna gauzatzea eta eskatzea da.

Jardun daigun Caritasegaz.

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari.

# CAMPAÑA DE CÁRITAS

20 de DICIEMBRE de 2015

## 4º DOMINGO DE ADVIENTO (C)

## «Practica la JUSTICIA todos los días del año»

**Subsidios litúrgicos**

**Notas previas:**

- *No olvidéis pasar estos subsidios por las manos del equipo animador de la liturgia.*
- *Los materiales se han preparado con antelación. Tened en cuenta que en la fecha de la Campaña puede haber acontecimientos que haya que incluir en la Oración Universal.*
- *La lectura de los materiales que acompañan a los subsidios litúrgicos es buena para comprender el sentido de la Campaña e iluminar lo que se diga en la homilía.*

### MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Estamos a las puertas de la Navidad. Hemos llegado al último domingo de Adviento, y se nos invita a fijarnos, una vez más, en la figura de María, la Virgen de la esperanza por la que nos viene el Salvador. Estemos dispuestos, como ella, a acoger al Señor y seguir sus caminos. Él es la plenitud.

Cáritas nos invita a participar en su Jornada Navideña con el lema: «Practica la justicia todos los días del año”. La justicia es la primera exigencia de la caridad: amar al prójimo significa respetar con los hechos al prójimo en su dignidad personal y en sus inalienables derechos. Cáritas trabaja por la justicia.

Dios nos llama a construir la fraternidad en el mundo practicando y defendiendo la justicia, hasta el punto que creer en Dios es practicar la justicia y exigirla.

Trabajemos con Cáritas.

Nos unimos en el canto para iniciar la celebración.

→

## SARRERAKO ABESTIA

Abestuz ekingo deutsagu ospakizunari...

## ABADEAREN AGURRA

Gu salbatzera datorren Jauna, zuekin.

## KOROAREN ZEINUA ETA DAMU OTOITZA

Laugarren kandelea biztean, Ama Mariagan pentsatuko dogu. Ez dau sekula inork berak besteko irrika eta maitasunez itxaron. Maitasunean eta zuzentasunean prestatu gura dogu geure burua. Lagun hurkoaganako eta justiziaganako kristinau maitasuna ezin dira banandu. Horreekaz, gizarte gizatiarrago eta gizatiartzaileagoa egin daikegu danon artean.

***Laugarren kandelea biztu eta, ondoren, esan:***

- Ilunpetan bizi diranen artean argi egitera zatozan munduaren Argia: *Erruki, Jauna.*
- Zure herria egia eta zuzentasunaren bideetatik zuzentzera zatozan gizadiaren gida: *Kristo, erruki.*
- Gure makaltasunaren zauriak osatzera zatozan Bizi-iturria: *Erruki, Jauna.*

## OHARRA 1. IRAKURGAIARI (Mik 5, 1-4a)

Lehenengo irakurgaian, Mikeas profeteak, gertatu baino gizaldi batzuk aurretik, Mesiasen jaiotza iragarten dau. Belen izeneko herri txiki eta ezezagunean jaioko da. Herri guztiak batuko ditu, bakea emongo deutse.

Izan be, Jaungoikoaren indarra gauza txikietan, apaletan agertzen da.

## CANTO DE ENTRADA

Iniciamos la celebración unidas en el canto

## SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, que viene a salvarnos, esté con todos vosotros.

## GESTO DE LA CORONA Y ACTO PENITENCIAL

Al encender hoy la cuarta vela, pensamos en María, la Madre. Nadie esperó con más ansia y amor. Nosotros queremos prepararnos así: En el amor y la justicia. El amor cristiano al prójimo y la justicia no se pueden separar. Con ellos podemos hacer entre todos una sociedad más humana y más humanizadora.

***Se enciende el cuarto cirio y, a continuación, se dice:***

- Luz del mundo, que vienes a iluminar a quienes viven en tinieblas: *Señor, ten piedad.*
- Guía de la humanidad, que vienes a conducir a tu pueblo por las sendas de la verdad y de la justicia: *Cristo, ten piedad.*
- Fuente de vida, que vienes a curar las heridas de nuestra debilidad: *Señor, ten piedad.*

## MONICIÓN A LA 1ª LECTURA (Miq 5, 1-4a)

En la primera lectura, el profeta Miqueas, siglos antes de que suceda, anuncia el nacimiento del Mesías. Nacerá en una pequeña y desconocida aldea llamada Belén. Congregará a todos los pueblos, les concederá la paz.

Y es que la fuerza de Dios se manifiesta en lo pequeño, en lo sencillo.

## OHARRA 2. IRAKURGAIARI (Hb 10,5-10)

Bigarren irakurgaian, Hebrearrei idatzitako gutunaren egilearen arabera, Kristo Abade Nagusi bakar eta egiazkoa da jarraitu behar dogun eredua, kristinau izan gura badogu.

Haren antzera, danok esan beharko geunke: *"Hemen nozu zure borondatea egiteko!"*

## JAUNGOIKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Jaunaren etorreraren zain, bat egin daigun otoitzean, Berak gizadi osoaren bidea barritu daian:

- Eleizearen alde. Maria bere itzalaz estali eban Espiritu Santuak ausardia emon deiela kristinau alkarteei eta uxatu daiala eurotatik etsipena, fedea ilusinoz zabaldu daien.
  *Eskatu deiogun Jaunari.*
- Behartsuen alde. Jaiak behartasunean eta bakartadean biziko daben personengan autortu daigula desbardin eta baztertuagan haragitu zan Jaungoikoa eta ez daigula inor etorkizun barik itzi.
  *Eskatu deiogun Jaunari.*
- Caritasen alde. Erakunde honetan eta beste batzuetan pobretasunaren aurka eta zuzentasunaren alde jarduten dabenek sendo iraun daiela euren eskaintzan eta euren lekukotasunak bultzatu gaizala behartsuari jagokona itzultzera eta bere eskubideak defendatzera.
  *Eskatu deiogun Jaunari.*
- Gu guztion alde. Jaunak emon deigula eskuzabaltasunez eta maitasunez jokatzeko adorea, inguru behartsu eta baztertuetara jo eta egoera hori jasaten dabenen egoerea geure egin daigun. Eskatu deiogun Jaunari.
  Eskatu deiogun Jaunari.

Jaungoiko Jauna, Maria birjina emakumeen artean bedeinkatu dozu Jaunaren Ama lez; onartu gure erreguak eta antzeman daiguzala zure etorreraren zantzuak.
*Jesukristo gure Jaunaren bitartez.*

## MONICIÓN A LA 2ª LECTURA (Heb 10,5-10)

En la segunda lectura, según el autor de la Carta a los Hebreos, Cristo, único y verdadero Sumo Sacerdote, es el modelo que tenemos que seguir, si queremos ser cristianos.

Todos deberíamos ser capaces de poder decir como Él*: "¡Aquí estoy para hacer tu voluntad!"*

## ORACIÓN UNIVERSAL

En la espera de la venida del Señor, unámonos en la oración, para que Él renueve el camino de la humanidad entera.

- Para que el Espíritu Santo, que cubrió a María con su sombra, infunda valor a las comunidades cristianas, aleje de ellas la desesperanza, y transmitan con ilusión la fe que da sentido a su vivir.
  *Roguemos al Señor.*
- Para que en las personas pobres y en quienes vivirán estas fiestas en la soledad y la tristeza reconozcamos al Dios que se encarnó en lo diferente y lo marginado, y a nadie dejemos sin futuro.
  *Roguemos al Señor.*
- Para que Cáritas y quienes trabajan contra la pobreza y a favor de la justicia se mantengan firmes en su entrega, y su testimonio nos impulse a devolver al pobre lo que le pertenece y defender sus derechos.
  *Roguemos al Señor.*
- Para que a todos nosotros el Señor nos infunda generosidad y amor para encarnarnos en las realidades más pobres y necesitadas, y sepamos hacer que quienes pasan necesidad formen parte de nosotros.
  *Roguemos al Señor.*

Oh, Dios, que has bendecido a la Virgen entre todas las mujeres como la Madre del Señor, acoge nuestras súplicas y haz que reconozcamos los signos de tu visita.
*Por Jesucristo, nuestro Señor*



→

→

## OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

Maitasuna, zuzentasunean, guztion ongizatean eta ondasunen banaketa zuzenean oinarritutako giza hartu-emonen garapenean zehazten da. Gure lan, diru, denpora eta laguntasunagaz besteak gure zati bihurtzen doguz.

**Gaur batzen dan dirua Eleizbarrutiko Caritasi emongo jako; berak suspertzen gaitu leial irauten sufritzen dabenen alde.**

Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

## *JAUNARTZE OSTEKO ISILTASUNERAKO*

Maria, Jaungoikoaren behartsua, zeure behartasuna emon zeuntsan Jaungoikoari
eta Berak bere aberastasunaz bete zinduzan.
Maria, aberatsa maitasunean, grazia eta errukiz betea.
Maria, Jaungoikoaren behartsua, lagundu eiguzu Jesukristoren behartasun santua bizitzen.
Maria, errukiaren Ama, jantzi gaizuz zure errukiaz
eta erakutsi eiguzu oinazetan eta behartasunean dagozanakaz errukitsu izaten.
Maria, gaixoen osasuna,
emoiguzu gaixoei zure botika osasungarriak eroateko gaitasuna.
Maria, atsekabetuen arintasuna,
zure seme-alaba guztiok negarrez dagozanak arintzeko gauza izan gaitezala.
Maria, Doloretako Amabirjina,
anai-arrebengandik gertu egoten eta euren samina geure egiten jakin daigula.
Maria, behartsuen Ama,
erakutsi eiguzu behartasuna eta berau eragiten daben arrazoiak ezagutzen,
sufritzen dagozanen ondoan egoten eta eurengan Jesukristo ikusten.
Maria, etorkina izan zinan horrek,
erakutsi eiguzu gure ateetara heltzen diran guztiak onartzen, errespetatzen eta laguntzen.
Maria, Belengo etxeetan hartu ez zinduezan horrek,
lagundu eiguzu baztertuak eta bizilekurik ez daukienak ez kanporatzen.
Maria, Kanan ardaoa falta zala jakin zenduan horrek,
egizu ez daitela ogirik falta gure familietan.
***Amen.***

## MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

El amor se concreta en el establecimiento de las relaciones humanas regidas por la justicia, el bien común y el destino universal de los bienes. Con nuestro trabajo, dinero, tiempo y compañía hacemos que los demás formen parte de nosotros.

**La colecta de hoy será destinada a Cáritas Diocesana, que nos anima a fidelizar y sostener nuestro apoyo a las personas que sufren.**

Muchas gracias por vuestra generosidad.

## *PARA EL SILENCIO DE LA COMUNIÓN*

María, pobre de Dios, diste a Dios tu pobreza y Él te llenó de su riqueza.
María, rica de amor, colmada de gracia y de misericordia.
María, pobre de Dios, ayúdanos a vivir la santa pobreza de Jesucristo.
María, Madre de misericordia, vístenos de tu misericordia
y enséñanos a ser misericordiosos con los que sufren y están necesitados.
María, salud de los enfermos,
capacítanos para llevar a los enfermos tus medicinas saludables.
María, consuelo de los afligidos,
que todos tus hijos e hijas sepamos consolar a los que lloran.
María, Virgen de los Dolores,
que sepamos estar cerca y compartir el dolor de los hermanos.
María, Madre de los pobres,
enséñanos a conocer la pobreza y sus causas,
a estar cerca de cuantos sufren y a ver en ellos a Jesucristo.
María, Tú que fuiste inmigrante,
enséñanos a acoger, respetar y ayudar a cuantos llaman a nuestras puertas.
María, Tú que fuiste rechazada en las casas de Belén,
que nunca rechacemos a los marginados y a los que no tienen casa ni techo.
María, Tú que supiste la falta de vino en Caná, no permitas que falte el pan necesario en nuestras familias.
***Amén.***

Cáritas
Bizkaia

Erribera 8. 48005-BILBAO ☎ 94 402 00 99 🖷 94 402 00 98 caritasbi@caritasbi.org www.caritasbi.org